



EBAZPENA, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena; honen bidez oposizio-fasean izangaiek guztira lortutako kalifikazioak argitara ematen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan (Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deituak).

Oposizio-faseko probak amaitu eta epaimahaiek emaitzak argitaratu ondoren, izangaiek aipatutako fasean guztira lortutako kalifikazioak argitara ematen dira.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Argitaratzea oposizio-fasea gainditu duten izangaiek guztira lortutako kalifikazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan (Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deituak).

Bigarrena.- Oposizio-fasean guztira lortutako kalifikazioen zerrenda hemen argitaratzea:

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Oposizioko nota» – «Alfabetikoki» / «Puntuz».

Hirugarrena.- Oposizio-fasea gainditu ez dutenak notarik gabe agertzen dira zerrenda horretan, eta beraien nota kontsulta dezakete «Norberari egokitutako kontsulta»-ren bidez – «Puntuazioak».

Laugarrena.- Guztira lortutako kalifikazioen aurka ez dago errekurtsoa jartzerik; interesa duten izangaiek berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka (deialdiaren 10.4 oinarrian aurreikusitakoa).

Gasteizen, sinatzen den egunean.

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN

